



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-01-15

VIURTEA 1.336.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Laskorain ikastolako Merkatu Txikiak 16.000 euro bildu ditu

GORAKA Pasa den urtean bilduriko kopuruarekin alderatuz 3.500 euro gehiago lortu dituzte aurten

PARTE-HARTZEA «Guraso, irakasle, ikasle eta dendarien lana» goraiatu du Koldo Jauregi irakasleak 3



Bildu duten diru guztia Ekuador eta Sahara laguntzeko bideratuko dute. ESTI EZEIZA



Zerkausia jendez lepo zegoen, aurkezpenaren unean. HITZA

Tolosako Arraun Klubaren 2008 denboraldirako batelak, aurkeztuta

TOLOSA Zerkausian egin zuten aurkezpen ekitaldia; Zelai izango da babesle berria 2

Ugareko lanetan «segurtasun falta» salatu du Vazquezek

ZIZURKIL PPko zinegotziak Udalean salatu du egoera; Udalak «gizartean alarma piztea» egotzi dio eta Ugare «erabat segurua» dela gaineratu du 7

Leire Olaberria txirrundularia Los Angelesen dago Munduko Kopan aritzeko

IKAZTEGIETA Pistako kopako hirugarren txanda egitera joan da; orain arte Mexikon izan da 4

Baserri eremuen biziraupena hizpide eskualdean

TOLOSALDEA Lizarrusti parketxeokoe antolatu dituzte hitzaldiak; etzi, Amezketan izango da eta datorren astean, berriz, Abaltzisketan 4

Urte hasiera txarra Tolosa Aralarreko jokalarientzat

Saskibaloia » Urtea emaitza txarrekin amaitu ondoren, oraingoan, sei punturengatik galdu dute lruñeako partidaren.

ERREDAKZIOA

Bururik altxa gabe jarraitzen du Tolosa Aralarrek. Oraingoan, partida osoan borrokatzen aritu eta gero, azkenean 6 punturengatik galdu zuten, une honetan aurkari zuzena duen CNP-UPNA taldearen aurka. Porrot honekin sailkapeneko behekaldean jarraitzen du taldeak eta garbi geratzen ari da maila mantentzeko lana gogotik egin beharko dutela, dituzten ga-beziak hobetuz, batik bat.

Lehen minututik ikusi zen partida borrokatua izango zela 40 minutuetan zehar. Aldeak ez ziren hamar puntutara iritsi inoiz eta nahiz eta denboragehienean etxeko taldea izan aurretik, tarteka tolosarrak ere aurreratu ziren, nahiz eta euren alde handiena 3 puntu-koa izan zen.

Gauzak zailtzen ari dira, beraz, tolosarrentzat. Partida honetarako, Kikeren ohiko bajaz gain Gonzi jokalaria ere etxean geratu zen neumoniak jota. Hala ere, bere lana funtsezkoa izan zen taldeak norgehiagoka jokatu ahal izateko. Bi hauen ordez Alain eta Mendilu jubenilek bidaiatu zuten taldearekin. Dena den, bigarrenak ez zuten seniorrekin debutatzeko aukerarik izan.

Partidaren gakoa, nafarren sendotasun fisikoan egon zen. Errebotea asko borrokatu zuten euren piboten gorpuzkera baliatuz eta honez gain, presioa ekiditeko arazoak izan zituzten tolosarrek. Hauek dira landu beharreko atalak eta oraindik badago denbora hobetzeko, denboraldiko partida garrantzitsuenak iritsi aurretik. Beraz, lana egitea tokatzen da.

Datorren partida etxean jokatu-ko dute taldeko liderraren aurka. Gasteiztarrek partida bakarra galdu dute orain arte eta pasa den astean 44 punturengatik irabazita datoz hirugarren sailkatuaren aurka. Esan gabe doa, oso zaila izango dela garaipena erdieste. Partida, larunbat 16:00etatik aurrera izango da.

Laskorainek 3-2 galdu du Astigarragaren aurka

Areto futbola » Partida honen ostean sailkapeneko hirugarren postuan dira horitxoak; bi talde sendo ikusteko parada izan zen.

ERREDAKZIOA

Nazional B Txapelketako norgehiagokarik erakargarrienetako bat jokatu zuten Laskorainek eta Gipuzsalak pasa den larunbatean Astigarragan. Aurrez behinik behin, neurketak kirol honek maila honetan izan dezakeen erakar-garritasun guztia biltzen zuen: sailkapeneko hirugarrena eta bigarrena nor baino nor.

Neurketak kirol arloan «espero zitekeena eman zuen» eta Astigarragako kiroldegira jende multzo ederra hurreratu zen, Gipuzkoako areto futbol hainbat aurpegi ezagun bane.

Aurreratu bezala partidak kirol maila ona eskaini zuen. Lehen zatian batez ere, bi talde sendo ikusteko parada izan zen. Talde lanabikain burutuaz defentsan eta baloia ondo ukitu eta zainduaz, erasoan pazientzia aritu ziren. Gol auke-
rak ere izan ziren, argiena Yustosek emandako zutoinkada bat, baina atezainek ez zirela arratsalde pasa joan frogatu zuten: Arribillaga ibartarrak oso lan ona burutu zuten. Horitxoentzat txarrena Telletxearen lesioa suertatu zen, ze-

lairatu eta berehala orkatila bihurritu baitzuen. Baja garrantzitsua zalantzarik gabe.

Bigarren zatian gauzak bereberan iraun zuten Astigarragako golera arte. Eta hauxe izan zen hain zuten ere derbiaren gakoa, lehen gola etxekoen alde erori zela eta ondorengo jokaldietan Astigarragatarrak hazi egin zirela eta horitxoak kikildu, 1-0 otik 3-0ko markagailura bi minutuetan pasa zirelarik.

Markagailuan irekitako alde-gatik ere, horitxoek ez zuten amor-erik eman eta bukaerara arte jarraitu zuten lanean, partidak amaiera nahasi bezain zirraragarria izan zuen. Dena Saldiasek hamar metrotatik sartutako golarekin hasi zen, etxekoak oso urduri ipini baitzituen gol honek. Bi minuturen faltan, horitxoak gehien ari zirenean estutzen, Yustos kanporatu zuten epaileek entrenatzaileek eskatutako denbora batean, joko geldi zegoenean. Ondorioz, lau jokalarirekin jokatu behar izan zituzten horitxoak azken minutuak. Hala ere, Saldiasek berriro ere bigarren gola sartu zuen horitxoentzat eta «emozioa gainezka izan zen» azken segundora arte.

Porrot honekin sailkapeneko hirugarren tokira erori dira Laskorainoak. Dena den, mota guztietako bajak ahaztuta, datorren larunbateko partidaren ipini beharra daukate arreta orain.



TAKen aurkezpen ekitaldia

ARRAUNA » Abenduaren 30ean TAKek, 2008 denboraldiko batelen aurkezpena egin zuen. Zerkausion atera ziren argazki ofizialak jantzi berriekin, bere babesle izango den Zelaiko logotipoarekin. Ondoren, estropada jokatu zen 11 eta 15 urte bitarteko 60 neska-mutil baino gehiagoren artean. Proba seniorrek eta gazteek amaitu zuten, 25 parte-hartzaileekin. Hauei guztiei, lehiatzen ez duten,

40 bat lagun gehituz gero 125 kirolari dabilta TAKen. Beraz, bistan da egunetik egunera handitzen ari dela arraunlari kopurua. Estropada amaitu ondoren lunch-a eman zieten bertaratu ziren guztiei. Azkenik, ekitaldiari amaiera emateko, Sabino Alijostesek, klubeko lehendakariak TAKek zozketatutako saskia eman zion Mertxe Plazas irabazleari. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Tolosan emakumea behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 626 86 89 14ra.

SALGAI

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 615 75 57 62.

📍 **Eztabaida.** Olarrain auzoko Benta Haundi jatetxearen inguruan obretan ari dira. Hori dela eta, asko dira zabalzen ari diren zurrumurruak. Batzuen esanetan kirolarientzako hotel bat egin behar dute, beste batzuek diote berri, etxebizitzak eraikiiko dituztela. Zuk ba al dakizu erantzuna?

www.tolosaldekohitza.info

Emaitza onak lortu dituzte Tolosa CFkoek

Futbola » Zortzi taldeetatik bakarrak galdu du asteburu honetako partidetan; Hirugarren Mailakoek 3-1 irabazi zioten Amorebietari.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko taldeentzat asteburu nahiko ona izan dela esan daiteke. Izan ere, zortzi taldeetatik bakarrak galdu du. Gaintzeko laurak irabazi egin dute, eta hiruk, berdindu.

Hirugarren Mailakoek ozta-ozta, eta azkeneko mementoan, baina 1-0 irabazi zion Amorebietari. Eskualdekoak izan ziren nagusi partida guztian zehar, baina ez zuten zorterik izan jokaldiak amaitzeko garaian. Azkenik, partida amaitzeko hiru minutu falta zirenean, penalti bati esker, markagailuko berdinketa haustea eta partida irabaztea lortu zuten urdinek.

Larunbateko norgehiagokaren ostean, eta gaintzeko emaitzak

kontutan hartuta, sailkapeneko 15. postuan da orain Tolosa CF.

Gaintzeko emaitzak

Hirugarren Mailako neskek Vasconia izan zuten aukari, eta 0-0ko emaitzarekin amaitu zuten norgehiagoka. Lehendabiziko mailako kadeteen partida ere berdinketan amaitu zen. Hauek Lazkaokoen aurka lehiatu ziren eta 2-2 egin zuten. Kadeteen Ohorezko Mailakoek ere berdinketarekin konformatu ziren Añorgaren aurkako norgehiagokan. Jubenilen Ohorezko Mailan jokatu zen duten tolosarrek izan ziren asteburuangaldu zuten bakarrak. Hauek ezin izan zituzten Danok batekoak garaitu. Lurraldekako Lehendabiziko Mailakoek 4-3 garaitu zituzten Lengokoak. Jubenilen Ohorezko Mailakoek ere gustura etorri ziren etxera, Mondragoikoei 1-0 irabazi ondoren. Azkenik, Infantilen Ohorezko Mailan, 3-1 irabazi zioten Tolosakoek Sto. Tomas Lezio-koeki.

16.000 euro baino gehiago bildu dituzte aurtengo Merkatu Txikian

Elkartasuna » Pasa den urtean baino 3.500 euro gehiago bildu dituzte; Sahara eta Ekuador laguntzeko da dirua

ERREDAKZIOA

Laskorain ikastolak antolatu eta, Ibarrako misio taldea, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin burutu duten Gabonetako Merkatu Txikiaren balorazioa egiterakoan, «aurten ere erantzun bikaina» jaso dutela nabarmendu dute ikastolako ordezkariak. Horren adibide da 16.000 euro baino gehiago bildu dituztela, iaz baino 3.500 euro gehiago.

Bertan salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak eta abar «ikastolako guraso, dendarri eta gainerako herritarren eskuzabaltasunari esker izan dira eta urtez urte ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria iruditzen zaigu» azaldu dute. Halaber, benetan pozgarria dela diote Emaus Fundazioak, bazterketa-aren aurka burutzen duen proiektua, eta Tolosaldea Sahararekin eta Ibarratik misio taldeek dituzten asmoak ezagutzeko eta zabalteko antolaturiko ekintzetan jaso duten atxikimendua eta erantzun ona. «Honi esker ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan, ezagutu ahal izan dute hainbat jendek bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta ez oso urrutian gugandik gertu baizik».

Parte-hartze zabala

Merkatu Txikia posible egiteko jendegaririk hartu du parte, eta horregatik ere «oso gustura» azaldu dira. Guztira 160 dendarik hartu dute parte aurtengo Merkatu Txikian; arduradun gisa, hamabi egunetan zehar, 80 guraso, irakasle eta ikasle ohi aritu dira eta laguntzen, berriz, 140 ikasle (DBH 3-4 eta Baxxilergo 1-2). Hala, modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duten guztiak eskertu nahi dituzte.

Gizarte solidarioagoa

Laskorain ikastolako enstex, «ekimen xume hauen bidez gizarte solidarioagoaren alde ari garela ziur gaude eta jarraipena izan dezan merezi du. Kanpaina amaitu da, baina egitekoak egunerokotasunean hor dirau».

Bildu dituzten 16.000 euroak eta saldu gabe gelditu zen guztia Emaus Fundazioaren, Ibarratik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin taldeen esku utzi dute Laskorain ikastolakoek, «hauek baztertuekin orain arteko lana eginez jarrai dezaten».

Gertaera bitxia

Merkatu Txikian izan zen gertaera bitxirik ere, izan ere, herritar batek bere berokia utzi zuen une batez beste arropa zegoen lekuan, eta nahigabe hartu eta erosi egin zuten. Horren berri eman zuten HITZAN, eta segituan azaldu zen berokia erosi zuena, eta bueltatu egin zuten. Berokiaren jabeak eskertu egin nahi izan du herritar horren jarrera.



Merkatu Txikiko une bat, Tolosako Kultur Etxean. E. EZBIZA

«Jende askoren laguntza eskertu behar da: gurasoak, ikasleak, irakasleak, dendariak...»

KOLDO JAUREGI » Laskorain ikastolako irakaslea

Gizartea » Merkatu Txikiaren antolatze lanetan egon ohi da urtero Koldo Jauregi; gustura daude aurtengoarekin

I. TERRADILLOS

Koldo Jauregi (Baliarrain, 1951) Laskorain ikastolako irakaslea da, eta Merkatu Txikiaren antolatze lanetan egoten da urtero buru-bellarri. Aurtengoan ere hala izan da, eta behin bukatuta, «oso gustura» daudela izandako harrerarekin azaldu du.

Emaitza ona lortu duzue aurtengoan ere.

Bai, hala da. 16.000 euro baino gehiago bildu ditugu, iaz baino



HITZA

3.500 gehiago, izan ere, jende gehiago ibili da aurtun, eta oso pozik gaude.

Urtetik urtera, beraz, harrera hobea izaten du Merkatu Txikiak.

Bai, aurtengoan, bereziki lehenengo bost egunetan jende ugari ibili

zen erosketak egiten bertan, eta baita azken egunetan ere. Baina, erosleez gain, gauzak ekarri dituztenak ere asko izan dira aurtun, eta hori eskertzekoa da.

Merkatu Txikia posible izan da jende askoren laguntza behar da.

Guraso, irakasle eta ikasle ugari hartzen dute parte. Hasieran, ikasleak dendetatik pasatzen dira urtero bezala material bilketa egitera; hauek laguntza handia ematen dute, guztira 160 dendak hartzen dute parte. Dendek utzitakoaz gain, jendeak ematen duen materiala dago, eta gero Ibarratik misio taldeak antolatzen duen merkaturaren soberan geratzen dena.

Saldu gabe geratzen denarekin zer egiten duzue?

Tolosaldea Sahararekin elkarteari ematen diogu zati bat, horren baitan, udan hona etortzen diren haurrei emateko motxilak daude. Gainerakoa Emaus Fundazioari ematen diogu.

Sahara eta Ekuador laguntzeko da bildu duzun dirua.

Bihar bertan banatuko diegu Ibarratik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin elkarteei. Saharan ospitale bateko generadorea erosteko eta balioanitzeko zentroaren proiektuarentzat da. Orain janari bilketa kanpaina dago, eta ikastola era bete-betean sartuko da, *ikasle bat, gutxienez kilo bat* leloloperan. Ekuadorren, Izaskun Azurmendi ikasle ohia dago, eta piladora bat erosteko izango da dirua, arrozari azala kentzeko makina da.

Laburrak

Adimen emozionalari buruzko hitzaldia Orixen

HEZKUNTZA » Emozioak eta adimen emozionala izeneko hitzaldia antolatu dute etziraiko, Orixen institutu-tuan. 17:00etan hasiko da hitzaldia, eta Institutuko e-gelan izango da.

Errealeko futbolari beteranoak, Usabalen

KIROLA » Gaur, 19:30ean, Usabalgo futbol zelaian Errealeko futbolari beteranoak entrenamendua egingo dute. Talde hau, Usabalen jokatuko den, futbol Indoor txapelketan parte hartuko du. Txapelketa honetan Espainako Liga irabazi duten bederatzita taldeak ariko dira. Usabal Errealeko partiduen egoitza izango da.

'Que tan lejos' filma etziko zine-klub saioan

ZINEMA » Aste honetako zine-klub saioan *Que tan lejos* pelikula izango da ikusgai Leidor aretoan. Ohikoa den bezala, bi aukera izango dute etzi, pelikula ikusi nahi dutenek, hau da, 19:15etan hasita izango da bata, eta bstea 21:45ean hasten dena.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalatzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Gaintzatik aterata Abaltzisketara abiatuko dira ibilaldian igandean. Horretarako Larraiztik pasako dira. N. U.

Baserri eremuen biziraupenaz ariko dira hainbat jardunalditan

Natura » Etzi Amezketan eta datorren astean, berriz, Abaltzisketan Lizarrusti parketxeak antolatutako hitzaldiak izango dira.

NEREA URBIZU

Lizarrusti parketxeak antolatuta, Alegialdean bi hitzaldi eta jardunaldi interesgarri izango dira datozen egunetan: bata Amezketan etzi, eta bestea Abaltzisketan, hilaren 24ean. Baserri eremuen biziraupena da honakoan aukeraturako gaia: paisaia, bizimodua, lana, etorkizuna... Kasu honetan Aralar Parke Naturaleko landa eremuari erreparatu diote.

Amezketako balio anitzeko gela Herri txikiaketa paisaia kristian al dago? hitzaldia izango da eta Miren Askasibarrek bideratuko du; 19:00etan hasiko da.

Abaltzisketako jardunaldiak

Abaltzisketako jardunaldiak Kultur Etxean egingo dituzte. 15:30ean hasiko dira 20:00ak arte, eta bi zatitan banatuta. Hogei minutuko atsedendia egingo dute tartean (17:10etik 17:30era). Hauek

dira jorratuko dituzten gaiak: *Ba al dute tokirik lehengo baserriarrek gure gizartean?* Milu Castangekin (Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasunakoa); *Zer gertatzen ari da eta egiten ari gara baserri eremuekin?* Tolomendiko Iker Karrerak bideratuko du.

Atsedendia ondoan, 17:30a aldera, *Baserriarra ardatz, etorkizuneko apustua landa eremuen erronka berrien aurrean* landuko dute. Jexux Argiñarena Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusia arduratuko da gai honetaz.

Azkeneko jardunaldian Iker Karrera, Jexux Mari Gorostidi Abaltzisketako alkatea, Jexux Argiñarena, Iker Karrera, Jabier Amundarain Haundikoa nekazarismo elkarte kidea, Igor Aldalur, Nikolas Osinalde eta Milu Castang izango dira. Moderatzaile lanetan, berriz, Orkatz Goenaga, Lizarrusti Parketxeako ordezkaria.

Ibilaldia Alegialderantz

Bestetik, datorren igandean Gaintzako plazan elkartuko dira ibilaldi bategiteko, eta 08:30ean elkartuko

dira. Bertan paisaiaren bilakaeraz jabetuko dira. Gaintzatik abiatu eta Larraitz eta Abaltzisketa ere bisitatu dituzte.

Laguntzaileak

Jardunaldi hauek prestatzeko laguntzaileak behar izan dituzte Lizarrusti parketxeak: Gipuzkoako Foru Aldundia, La Caixa, Goimen, Tolomendi, Gaintzako Udala eta Amezketako eta Abaltzisketako udalak izan dira kasu honetan. Ekitaldi guztiak irekiak eta doakoak dira eta ez da zertan guztieta jartzen behar.

» EGITARAUA

■ **Etzi.** Miren Askasibarrekin 19:00etan, balioanitzeko gela Herri txikiaketa paisaia kristian al dago? hitzaldia.

■ **Hilaren 20an.** Gaintzako plazan 08:30ean elkartuko dira ibilaldia egiteko (Gaintza, Abaltzisketa, Larraitz, Gaintza).

■ **Hilaren 24ean.** 15:30etik 20:00etara Abaltzisketako Kultur Etxean, lau jardunaldi ezberdin, baserri eremuen biziraupenaren loturik.

Olaberria Los Angelesen da Pistako Munduko Kopan aritzeko

Ikaztegieta

Eliteko txirrindularia Mexikon egon da Espainiako selekzioarekin bilduta.

ERREDAKZIOA

Gaur bertan Leire Olaberria eliteko pista txirrindularia ostiralean hasten den Munduko Kopako 3. txanda egitera doa. Mexikon egon da orain arte (Espainiako selekzioarekin bilduta) eta gaur Los Angelesera (AEB) iritsiko da bertan bere taldekidearekin bilduz.

Munduko Kopako txanda osti-

ranean hasiko dituzte. Herenegun Olaberriak test batzuk egin zituen eta abiaturakoan bere betiko marka hobetu egin zuen. Hiru kilometrokoak joan den urtean baino 5 segundo azkarrago egin zuen. Honegatik, taldeko arduradunak baikor agertu dira Los Angelesekoari begira.

Bestalde, Olaberriaren Cespa-Euskadi taldekoak Spiuk Sportline Laudioko enpresak txirrindulariek eta kirol taldeak behar dituen burukoak emango ditu. Lekukomek, bere aldetik, komunikabideekiko harremanak landuko ditu eta taldeko txirrindularien emailen berri zabalduko du.

Laburrak

Gozogintza ikastaroa otsailaren 6tik hasita

ALEGIA » Alegian gozogintza ikastaroa egiteko aukera dago, Cebancoda eta Udalarek eskutik. Gure Etxea elkartean izango da eta otsailaren 6an hasiko da, apirilaren 30era arte (30 ordu). Asteazkenez izango da 18:00etatik 20:30era. 30 euro ordaindu behar da, eta izen-ematea hilaren 25era arte egin daiteke. Ikastaro gehiago ere badaude eta informazioa Alegiko Kultur Etxean lor daiteke.

Michel Marmierrekin bizkarrezurrari buruz

ALBIZTUR » Albizturko Udalak hitzaldi interesgarri bat antolatu du etzirako. Bizkarrezurrak ariko dira, lesioak eta izaten diren arazoez: *Bizkarrezurreko arazoak. Zergatiak eta prebentzioa*, hain zuzen ere. Michel Marmier mediku kiropraktikoa izango da bertan, eta galderak erantzuteko prest ere izango da. 18:00etan hasiko da. Ornoetatik eratorritako arazoak desagertaraztea da bere zereginetako bat. Teknika bat ere badu honetarako eta bizkarreko arazoak bilatzen ere trebea da.

Saharara produktuak bidaltzeko kanpaina azken aukerak

Gizartea » Alegian, Altzon eta Ikaztegiatan hainbat aukera eman dituzte, zenbait lekutan uztea posible izanik.

ERREDAKZIOA

Alegialdean gutxienez hiru herri-tan dago Saharara bidaltzeko produktuak uzteko aukera: Altzon, Alegian eta Ikaztegiatan. *Piztu Itxaropena* izenez ezagutzen den kanpaina jartzen da martxan garai honetan eta azukrea, dilistik, konpresak, artoa eta hegalaueza dira bilduko dituztenak. Saharar erre-fuxiatu kanpamentuetara eramateko da.

Altzon, udaletxe azpian eta Imaz Bertsolaria eskolan utzi daitezke (larunbatera arte). Alegian, berriz, udaletxe gizarte zerbitzuetan eta edozein ikastetxetan (ostiralera arte). Ikaztegiatan, berriz, kiroldegian, udaletxean eta eskolan (ostirala arte). Beraz, interesa dutenek, badute aukera.

txokoa
h

antzezlanerako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

urtarrilak 18 ostirala, 20:30ean
Tolosako Leidorren

PA GAG NINI

Yllana
antzerki taldearen
eskutik





Autza mendia igoko dute Aizkardirekin joango diren mendizaleek igandean. HITZA

Baztan aldera antolatu du Aizkardik mendi ibilaldia

Villabona » Erratzu-Autza-Alude zeharkaldia egingo dute igande honetan; osteguna izango da azken eguna izena emateko.

ERREDAKZIOA

Aizkardi mendizale elkarteak Erratzu-Autza-Alude ibilaldia antolatu du igande honetarako. Hain

zuzen, Erratzutik (302 metro) pista batetik abiatuko dira Iñarbil (307 m.) auzora iristeko. Hortik igoera polit bat egin, mendiaren ertzetik iparmendebalderuntz, Autza (1.306 m.) mendiaren gainera iritsiko dira. Baztango gain ederenetakoa da Autzakoa.

Hortik jaitsiera hasiko dute mendiaren ertz batetik hegoalderuntz Antzolatik eta Argainetatik (1.006 m.) igaroz. Mendizaleak al-

dapa behera jarraituko dute Aldude herriraino (307 m.) jaitsiz.

Zeharkaldiaren iraupena 5,30 ordukoa izango da gutxi gorabehera eta 15 kilometro inguru egingo dituzte. Izena emateko 943 69 44 58 zenbakira (Joxan) deitu behar da edo Aizkardiren egoitzara joan. Azken eguna izena emateko etzi izango da. Ibilaldiaren irteera Olaederra kiroldegia iren ondortik egingo da, 07:30ean.

Transportes Lakunzak hiru puntuak lortu zituen Durangon

Villabona » Atsedenaldira hutsna iritsi zen partida eta bigarren zatian sartu ziren gol guztiak; 2-4 izan zen azken markagailua.

ERREDAKZIOA

Partida gogor baten ondoren hiru puntuak lortu zituen Transportes Lakunza taldeak eta saiklapenean 2 postu aurreratu ditu, 10.era, hain zuzen. Durangoko taldea gogor atera zen kantxara, asko presionatzen eta ez zieten billabonatarrei jolasten uzten hasierako minutuetan. Denbora pasatzen zihon heinean arrisku gehiagorekin hurbiltzen hasi ziren Transportes Lakunzakoak aurkariaren atera eta horrek durangarrak atzeratu zituen. «Lehenengo zatia oso borrokatua izan zen, baina ez genuen golik sartu», azaldu dute billabonatarrek. «Aukera arriskuetsuagoak izan genituen baina hutsan joan ginen atsedenaldira. Bigarrenengo zatia aurrenekoabe-

zala hasi zen, baina gol aukera garbiagoak izan zituzten Transportes Lakunzakoek. Jokaldi on batean, presiotik ondo aterata, Etxanizek luze ematen dio Sinoeri. Baloia ondo eutsiz piboteatzen, Blantx azaldu zen ziztu bizian eta atezainaren hanka azpitik sartu zuen.

Gol gutxiko partida izango zela zirudien eta atsedenaldira billabonatarrek elkarriz esan zieten ondo itxi behar zirela atzean aurkariak aukerarik ez zezaten eduki. Baina gola sartu eta gutxira egin zieten berdinketa. «Ez gintuen gol horrek besoak jeitsiarazi eta berdindin jarraitu genuen. Aukera garbiak edukiz eta gu atzean ondo itxi», azaldu dute.

Bina berdinketa

Jokaldi pertsonal batean, Juankarrek, angulorik gabe egon arren jaurtiketa egin eta bigarrena lortu zuen. Horren ondoren, baina, jokaldi inozo batean, atezain billabonatarrek baloia aldentzerakoan aurkariari joan zitzaion eta berdinketa etorri zen. Bazirudien gola

sartzen zuenak norgehiagokako hiru puntuak bereganatuko zituela eta horrela izan zen. Etxanizek baloia jaso zuen areaz kanpo eta bigarrenengo postera pasatzekotan zenean, azkeneko mementoan aldatu zuen jaurtiketa eta atezaina nahasiz gola sartu zuen.

Aurkariak gol horren ondoren atezain-jokalaria atera zuen eta abantailaz jolastu zuen baina ez zuten aprobexatu, billabonatarrek ondo defendatu baitzuten. Kontraeraso batean Sinoe eta Blantxen arteko jokaldi batean igo zuen Sinoe laugarrenengo gola markagailua eta honenbestean bukatu zuen norgehiagoka.

Bostekoa, Aitor Jimenez, Ibon Aranzabe, Xabier Blantx, Oskar Urbano eta Juankar Santxez izan zen. Ordezkoak, berriz, Lander Uzkudun, Sinoe Sanz eta Asier Etxaniz izan ziren. Ander Nuñez atezainak ez zuen jolastu arazo fisikoengatik.

Hurrengo norgehiagoka larunbatean izango da 16:00etan Eskoriatza taldearen aurka.



Esan nirev orri bikoitzeko iragarki bat behar uela

Interesgarria, hemengoa izan behar

%5 U.T.B.

2008KO MARTXOAREN 31RA ARTE GEHIENEZKO ZENBATEKOA 10.000€

egundoko interesa, erabilgarritasunarekin eta komisiorik gabe aurrezpena ikusteko duzun era aldatuko dizu

Interes-tasa %5 U.T.B. (%4,889 nominala). Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxieneko zenbatekoa: 2.000 €. Ohiko ordainketa: %3,25 U.T.B. (%3,203 nominala) Helbideratzerik ez du onartzen.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Kantabriko Tabernan Anjel Arrospeide eta Donato Larretxea aizkolariak elkartu ziren mahaiaren inguruan. Leaburuarrak luzatu zuen deialdia eta Larretxea erantzuteko asmoz agertu zen.

Apustu baten bizipoza

ASIER IMAZ

Kantabriko Taberna. Tolosa. Iragan larunbata. 20:00ak puntuan. Ohiko bezeroak barraren kanpoaldean. Jangela nagusian afaldarrak. Jangela txikian, ia ezkutuan, zerbait gertatzen ari da; edo zerbait gertatzeko esperantzarekin, zortzi gizon aurkitzen dira eserita mahai baten inguruan.

Tabernako nagusia gerturatu eta hiru ur botila eta hainbat baso utzi ditu. Ez dirudi inor ohartu denik, halabere, segituan zabalzen dituzte botilak. Tabernako nagusia mahai buruaren ondoan esertzen da.

Telebista kamara gazte bat dabil mahai ingurukoan irudiak hartzen. Hainbat buelta eman ondoren, bere lankidearen ondoan esertzen da alboko mahaiaren. Biak baxu hasten dira hizketan, ondoan gertatzen denari jaramon handirik egin gabe. Oraingoiz lana amaitu dute.

Kantabriko nagusia zutik jarri eta gela txikitik irtetzen da. Euskadi Irratiko herri kirol kazetaria jangela txikian sartu eta mahai inguruan eseritzen da. Mahaian hitz egiten ari dena entzuten du une batez, alboratu begiratu eta irten egiten da apustu gelatik. Pilota partida amaitzean dago eta azken tantuak ikustera doa barraren ondoan.

Koldo Aldalur, ETBko kirol kazetaria, jangela txikian sartu da. Kamara eskuetan zuen gaztearen aldamenara doa. Mahaira begiratu eta gaztea eta honen kidearekin, grabatu beharreko planoen inguruan ari da hitz egiten. Gazteak kamara berriz eskuetan hartu eta Aldalurrek agindutakoa betetzen du. Sakona, Euskadi Irratiko esataria, apustu gelara itzuli da. EITBko bi lankideak mahaiaren beste buruan eseri dira. Hitzik egin gabe,

bertain hitz egiten ari dena entzuten ari dira. Sakona aulkitik altxa eta oliba batzuk dakartza. Urarekin egin bezala, mahai gainean utzi eta mahai buruan esertzen da. Koldo Aldalur mahaitik altxa eta Sakonarengana doa. Kamara gazteak hartu ditu Aldalurrek nahi zituen planoak eta ondoko mahaira doa. Hauen aldameneko mahai txikian, bi jubilatutako aurkitzen dira, apustu gelaren barnean, zer gertatzen den jarraitu nahian.

Hauen aldamenean, aulkirik gabeko mahai bat dago, ordenagailu portatil bat eta inpresora bat ditu gainean. Apustu mahaiaren, olibak amaitzean daude, ardo botila hustutzear. Mahai honetan, tabernariarekin batera, zortzi gizon ari dira hizketan.

Hauen aldamenean, aulkirik gabeko mahai bat dago, ordenagailu portatil bat eta inpresora bat ditu gainean. Apustu mahaiaren, olibak amaitzean daude, ardo botila hustutzear. Mahai honetan, tabernariarekin batera, zortzi gizon ari dira hizketan.

Mahai nagusian: apusutua

Kantabriko Tabernan Anjel Arrospeidek zita jarri zuen iragan larunbaterako: «20:00etatik aurrera eseritzen da. Aizkora Apustua. Hiru enbor zutik, hiru etzanda. Enbor guztiak oinbikoak. Nahi duenari luzatua doa apusutua».

Zurumurruren arabera, leaburuarrak luzatutako erronkari erantzutera bi aizkolari agertuko omen ziren, baina Tolosara Donato Larretxea Arantzarra (Nafarroa) bakarrik agertu zen.

Mahai nagusira itzulita beraz, iragan larunbata da. Anjel Arrospeide eta Donato Larretxea aizkolariak aurrez aurre eseririk daude. Arrospeideren ezkerretan, Larretxearen anaia. Arantzarraren ezkerretan, Arrospeideren konfidantzazko laguna. Aldamenean, leku-



Mahaiaren inguruan aizkora apustua izan zuten hizpide bertan elkartu zirenek iragan larunbatean. A. IMAZ

ko modura, Kantabriko nagusia. Mahaian amaieran, apustularen konfidantzazko lagunak, hitz egiteko baino babesa emateko asmo gehiagoz. Inguruan azkenik, kazetariak eta aldian behin apustu gela zeharkatuz aldameneko jangelara doazen atzerritarak, portugalarrak gehienak.

Kanaerdikoak bai ala ez?

Mahaia kokatua dago. Donato Larretxearen anaia hasi da hizketan, Arrospeide eta bere konfidantzazko gizonari. Larretxeak kanaerdikoak sartu nahi ditu apustuan. Arrospeide behera begira dago, Donato Larretxea burua tente, anaia- ren hitzak entzuten ari da.

Arrospeideren konfidantzazko gizonak hartzen du hitza. Argi azaltzen du eurek oinbikoko egurrekin jokatuko luketela apustua. Amaitu da? Ez dago adostasunik? Ez dago apusturik?

Sakona, zutik jarri eta telebista ikustera doa tabernara. Memento bat iragan eta berriz itzuliko da, ondoren berriz ere joateko. Ez da amaitu beraz.

Lehen saikera ez da ongi irten. Denbora aurrera doa. Orain beste gairen bat dute hizpide. «Zaharrak berean jarraitzen du...». Mindegiaz ari direla dirudi.

Donato Larretxearen anaia apustua jartzen du mahai gainean berriz. Kanaerdiakoak aipatzen ditu. Ezezko borobila Arrospeidek. Denbora aurrera doa eta haserako

ideiak nagusi dira bi aldeetan. Girona bapatean berotzen da. «Soka zuen aldera dago» entzuten da. Arrospeide ordea ez dago ados, bere ustez tiraldiak «eusteko modukoak» izan behar du.

Arrospeideren konfidantzazko lagunak hartzen du hitza, «etorri izana eskertzen dizuegu, baina guk buruan bota dugun apustua dugu». Argiote daude gauzak?

Kazetariak haruntza eta onuntza, baina ez doaz oso urritu. Bigarren saikerak huts egin du, baina

hirugarren beroaldi bat dator jarraian. Honek ere kale. Denbora gehiegi iragan da dagoeneko eta bi aldeek bere horretan jarraitzen dute. Larretxea zaharrenak hartu du hitza. «Honeraino etorri eta ezingo gara esku hutsik joan». Kazetariarekin ari da orain. «Hurrengo larunbatean, urtarrilaren 19an, hemen egongo gara, 20:00ak inguruan: 20 kanaerdikotara apustua luzatzen dugu». Arrospeideren ere zuzentzen zaio, «iritziz aldatzen badute, hemen egongo gara».



Donato Larretxea eta Anjel Arrospeide, iragan larunbatean Kantabrikoan. A. IMAZ

Hilberria

MOMARGUEYE

(Karmengo Ama ikastetxeko ikaslea)

Agur Momar, orain izar bihurtu zara eta zure argiak beti iraungo du gure bihotzean



PASAIAN
2008eko
urtarrilaren 15ean

Karmengo amaikas-komunitatea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



PPko zinegotziak ateratako zenbait argazki, Ugaren dauden obren egoera salatzen. RAUL VAZQUEZ

Vazquez PPko zinegotziak Ugareko obretan segurtasun falta dagoela salatu du

Zizurkil » Udalak Ugare «erabat segurua» dela azaldu du eta Vazquezi «gizartean alarma sortzea» egotzi dio.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udaleko zinegotzia den Raul Vazquezek (PP) Ugare auzoan egiten ari diren obretan «segurtasun falta» dagoela salatu du. «Udala ez da ari hartzen horrelako obrek eskatzen dituzten segurtasun neurriak», azaldu du. «Hesiak irekita daude eta jendea obraren barrura sar daiteke. Kableak eta lurretik daude», dio Vazquezek.

PPko zinegotziak Udalean salatu zuen egoera. Udalak prentsa ohar batean erantzun du Ugare guinea «erabat segurua» dela, bertako eraikin guztiak «behar diren azterlan eta proiektuen arabera» eginak daudelako, eta gaur egun gauzatzen ari diren lanetan «segurtasun-neurri zorrotzenak hartu direla, hasiera-hasieratik agerian utzi den bezala». Udalak Vazquez zinegotzia kritikatu du, «gizartean alarma sortzea bakarrik lortzen duen demagogia merkea praktikatzeari».

Vazquezek azaldu duenaren

arabera, salatutakoa «berriro egiaztatu» du herenegun obretara egindako bisitan. «Obrak babestu behar luketen segurtasun elementuek ez dute bere funtzioa betetzen eta oinezkoentzako arriskua dago».

Bere aldetik, Udalak «lasaitasuna helarazi nahi die herritar guztiak eta Ugare auzoko bizilagunei bereziki», eraiki diren etxe guztiak dagozkien azterlan eta proiektuen arabera eraiki direla «frogatzen duten agiri guztiak udaletxeko erregistroetan daudelako, eta egungo obrak normaltasun osoz gauzatzen ari direlako». Vazquezi bere «adierazpen alarmistak» egiteko «inolak arrazoiz eta argudiorik» ez duela esaten dio. «Oraindik ez du aurkeztu udaletxe honetan bere salaketa faltsuak egiaztatzen dituen inolako agiririk».

Dokumentazioa

Vazquen ustez Udalak «gezurra esaten du eta ez du argi hitz egiten dokumentaziorik ez dudala eman esatean». Ugareko obren egoera salatzen argazkiak eraman zituela dio. «Bertan hondeatzaile bat ikusi daiteke lan egiten ari dela proiektuziorik gabe eta balizarik jarri gabe, beraz, edozein oinezkoentzako edo jolasean ari den hauterentzako arriskutsua izan daite-

keen egoera baten berri eman gabe».

PPko zinegotziak ez duela «alarmista izan nahi» adierazi du, «baina ezin dira onartu EAJk ematen dituen aitzakia faltsuak, udal gobernuua baita segurtasun arauak betetzen ari direnearen dokumentaziorik ez duena». EAJk «egoeraren errealitatea jakin gabe» hitz egiten duela dio.

Zizurkilgo herritarrei obretara joateko gonbitea luzatzen die Vazquezek, «bertatik bertara lanen egoera ikusi ahal izateko, nik igandean egin nuen bezala, EAJren prentsa ohar faltsuak kontuan hartu beharren. Bitartean, Ugareko bizilagunek egungo udal gobernuaren eta bere Obra eta Hirigintzako zinegotzi «arduragabearen axolagabatasuna» jasaten ari direla dio Vazquezek. Legeak ezartzen dituen segurtasun neurriak hartzea eskatzen du, «pertsonek bizitzeko arriskuan baitaude».

PPko zinegotziak gaineratzen duenez, «galde diezaiotela argazkiak dagoen oinezkoari ea nola dagoen segurtasuna eremu horretan. Erabat lotsatu beharko lirarteke esatean dena ondo dagoela. Izan ere, ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dago». Herritarrei Ugareira joateko gonbitea berresten du, «baina kontu handiz, ezbe-

harra gertatzeko arriskua baita go». Neurriak hartu ditzaten Udalarik zein Udaltzaingoari emandako dokumentazioan arrisku hori «agerian gelditzen dela» dio eta dokumentazio hori Osoko Bilkuran erakutsi zuela azaltzen du eta idazkariak aktan jaso zuela eta beste zinegotziek ere jaso zituela gaineratzen du.

Herriko haur batek orain gutxi izandako ezbeharrak gogora ekartzen du Vazquezek. «Hori gertatu eta gero, burugabekeria da Udalak gehiago arduratzea nire oposizio lana kritikatzeko, obretan beharrezko segurtasun neurriak hartzeaz baino». Vazquezek ez du ulertzen zergatik EAJ «hainbeste haserretzen den, segurtasuna indartzeko eta enpresa eraikitzaileari ordaintzen zaion lana behar bezala egitea eskatzeko egiten dudan proposamena babestu ordez».

Bestalde, Vazquezek Udalak segurtasunaren inguruan egindako bilerara berandu eta gaizki deitua izan zela dio. Bilerara ezin izan zuela joan azaldu du, herrian oztopo arkitektonikoak ezabatzearen inguruko lanak egiten ari zelako. «Hala eta guztiz ere, garbituzi nahi dut segurtasunaren inguruko erabakiak egungo Udal gobernuak hartu behar dituela eta PPk aurkeztu dituen proposamenik ez dela kontuan hartu, EAJren jarraiera sektarioa dela medio».

Bilera egiteko asmoa

Bere aldetik, Udalak datoen egunotan argibideak emateko bilera bat egitea aurreikusten du, eta bertan Ugareko urbanizazioaren «xehetasun guztiak eta auzoa biziberritzeko lanetan hartutako neurriak» azalduko ditu. Udalak gaineratu du, «herrian gauzatzen diren jarduketak guztien berri eman, eta aurrera begira egin daitezkeen ekimenen buruz herritarren ekarpenak jasotzeko, Udaleko arduradunek aspaldi erakutsi zuen zizurkildarrak etengabe informatuta edukitzeko asmoa, eta herritarren partaidetzako ekimen horren baitan sartzen da oraingo hau».

Udalak gogora ekarri nahi izan du duela hilabete batzuk enpresa eraikitzaileko eta Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzako arduradunak bertan zirela eginiko bilera, Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztietako Ugare auzoko jarduketaren berri emateko. «Harrizkoa bada ere, PP alderdiko zinegotzia ez zen azaldu».

Udalak dionenez, Raul Vazquez zinegotziak «inolak oinarritik eta funtsik ez duen nahasmen eta asaldura egoera sortu nahi du herritarren artean, erasandakoen segurtasunaz kezkatzen den udal-kudeaketa irmo eta arduratsuen aurka jotzeko». Udalak dei bat luzatzen dio «bere jarrera demagogikoa alde batera utzi eta, egiaz herriaren alde lan egin nahi baldin badu, bide egokiak erabiltzeko, hala nola bileretara azalduz edota herriaren onerako diren proposamenak aurkeztuz».

Burni zubitik herriko sarreraraino itxita izango da obregatik

Villabona » Tolosarako norabidean hartu da neurria; autobus geltoki eta ibilbideetan aldaketak daude.

ERREDAKZIOA

Oria erdiko interzeptorean lanak direla eta, Burni zubitik Villabonako sarreraraino (GI-2631 errepidea) trafikoa moztuta dagoela azaldu du Udaltzaingoak ohar batean. Mozketak horrek Tolosarako norabidean bakarrik izango du eragina. Lan horiek gutxi gora behera urtarrilaren 25era arte iraungo dutela uste dute.

Villabonarako sarbidea moztuta dagoen epean, autobusek aldaketak jasango dituzte. Donostia-Tolosa ibilidean (TSST), Agaraitz auzoko geltokia indargabetu egingo da. Kale Berria 10.eko geltokia Izkina edaritegiaren alborra pasako da eta autobusa Zizurkildik etorriko da. Donostia-Asteasu ibilbidean (TSST), Kale Berria 10.eko geltokia indargabetu egingo da. Geltoki gertuena Zizurkilgo Pasas aldean dagoena izango da.

Donostia-Iruñea ibilbidean (Roncalesa), Donostia-Lizarra ibilbidean (Estellesa) eta Donostia-Bilbo ibilbidean (Pesa), kiroldegiko geltokia indargabetu egingo da eta autobusa Villabona gasolindegian geldituko da. Villabona-Zizurkil-Aduna-Villabona ibilbidean, Agaraitzeko geltokia indargabetu egingo da.

Altzariak zaharberritzeko eta Photoshop ikastaroak, aukeran

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak altzariak zaharberritzeko tailerra eta Photoshop ikastaroa antolatuko ditu. Altzariak zaharberritzeko tailerrak ondorengo programa izango du: egurra; altzariaren historia; materiala eta tresneria eta altzariaren zaharberritze prozesua. Photoshop ikastaroari dagokionez, programa ondorengo izango da: kamararen erabilera, argazkigintza teknika, Photoshop parekin eginiko argazki-tratamendu eta ukitu digitala.

Iraupena 40 ordukoa da eta baita ikastaroen kostea 40 eurotakoa. Informazio gehiagorako 943 69 39 30 zenbakira dei daiteke.



12°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketa

- **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa Aranburu Jauregian, otsailaren 16ra arte, 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehene-tan izan ezik.
- **Tolosa.** Jabier Villarreal Armen-darizen *Paralelo 42* argazki mon-ta-jeen erakusketa Aranburu Jaure-gian hilaren 26ra arte 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehene-tan izan ezik.
- **Alegia.** Jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansorenaren zeramika la-nak daude ikusgai hilabete osoan zehar. Alegikoei buruzko batzuez gain, beste berri batzuk ere jarri ditu.


Deialdiak

- **Ibarra.** Kiroal taldeek eta kirola-riek urteko ekitaldiatarako udal-laguntzak eska ditzakete hilaren bu-kaera bitarte.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehene-tan eta asteazkene-tan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko auke-ra izango dela. alpinouzturre@hotmail.com.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatatu du hi-laren 18tik 20ra: ostiralean Lizara aterpetxera joan, igande-an Bisau-rin mendia igo (2.640 m) eta igan-dean Bernera mendilerroa igo on-doren itzuliko dira. Izen-ematea, 637830380 telefono zenbakian egin daiteke.
- **Tolosa.** Zaldunita Bezperako emakumeen danborradan parte hartu nahi dutenek 699 551765 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.
- **Tolosaldea.** Sahararako janari bilketa (dilatistak, arroza, hegaluzea, azukrea eta konpresak) Tolosal-deko kultur etxeetan eta udaletxe-etan

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-gusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Iruran bizi den Aitor Mendiluze andoindarrak irabazi zuen txapela, pasa den abenduaren 16an izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. BERTSOZALE ELKARTEA

HITZAren harpidedunek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren inguruko DVDa eskuratzeko aukera izango dute gaurtik aurrera, 6 euroren truke, eskaera telefonoz eginda, 902 820201 zenbakian.

G puntua DVDan aurki daiteke

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren DVDa argitaratu du laster Gipuzkoako Bertsotale Elkarteak. HITZA eta *Berria* izan ziren txapelketa haren babesle nagusietakoak, eta Bertsotale Elkartearekin adostutako elkarlanaren ondorioz, orain, HITZAren harpidedunek etxean bertan jaso ahal izango dute Illunbeko finalaren edukia biltzen dituen DVDa.

Horretarako, harpidedunek 902 820201 telefonoan egin dezakete eskaera, gaurtik aurrera, eta sei euroren truke etxean jasoko dute DVDa, postaz.

Honela, Illunben abestu zituzten bertso hautatuak nahi beste al-diz entzuteko eta gozatzeko auke-ra izango dute, etxean bertan.

» TELEFONOA

902 820201

- **Eskaerak.** HITZAren harpidedunek, gaurtik aurrera, telefono horretan. Etxean jasoko dute G puntua DVDa.
- **Prezioa.** 6 euro.
- **Kioskoan.** Urtarrilaren 26an eta 27an, *Berria* egunkariarekin.

Finaleko bertsoaldi hautatuak

Zehazki, *G p puntua. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2007. Finaleko bertsoaldi hautatuak* da DVDaren izenburua, eta pasa den abenduaren 16an Donostiako Illunbe zezen-plazan jokatu zen finalean Unai Agirrek, Beñat Gaztelumendik, Jexuxmari Irazuk, Aitor Mendiluzek, Jon Maiak, Jon Martinek, Aitor Sarriegik eta Iker Zubeldiak

abestutako bertsoen hautaketa da. Agurretatik hasi, eta ofiziki auzin banaka, finala amaitu arte egindako lan guztien hautaketa ederra da.

Bertso Egunarekin, kioskoetan

HITZAren batera, *Berria* egunkaria izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren babesle-tako bat, eta horri esker, DVDa kioskoan es-

kuratu ahal izango da *Berria* egunkariarekin batera.

Zehazki, aurtengo Bertso Egunarekin bat eginez, urtarrilaren 26an eta 27an izango da salgai Illunbeko finaleko DVDa kioskoetan, kasu horretan ere 6 eurotan.

Dena dela, urtarrilaren 26a arte itxaron beharrik gabe, HITZAren harpidedunek gaur bertan egin dezakete eskaera, telefonoz.

A Agurrak



Zorionak!

Zorionak Gufi! Aupa Aner! Inkisizioari kaña! Jo ta su! Gipuzkoako zuen lagunak.